

Gaur Buztintxurin programatuta zegoen etxegabetzea gelditzea lortu dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 23/01/2024

Haritu elkarlaguntza sarea adierazi duenez "antolakuntzari esker eta presio sozialari esker gelditzea" lortu dute.

Gaurko zegoen programatua Carolina eta bere familiaren etxegabetzea, Iruñeako Bustintxuri auzoan, hala ere, joan den astean epaitegiek etxegabetezari argi berdea eman zioten arren, bertan behera geratu dela jakinarazi du Harituk prentsa-ohar batean.

Carolina egoera zaurgarrian dago, eta egoera horretan dauden pertsonentzako etxegabeteen luzamenduaren dekretua aplikatu behar zitzaion arren, epaitegi batek erabaki zuen etxetik kanporatzea. Harituk premiazko errekurtoa jarri zuen, prozedura zuzenbidez okerra dela alegatuz, "kidearekiko berme formalak betetzen ez dituelako eta oinarrizko eskubide batzuk urratzen dituelako". Harituk adierazi duenez, hustutzea ikustarazteko egindako lanari esker "presioa areagotu egin da etxegabetzea geldiarazteko" eta beraz "mobilizazio deia erabakigarria" izan dela nabarmendu dute, kaleko indarrari esker 2023ko ekainean etxegabetzea gelditzea lortu zuten bezala.

Haritutik ohartarazi dutenez, ordea, "bizilekua arriskuan jarraitzen du, eta borrokan jarraituko dugu Carolinarentzat eta haren familiarentzat irtenbide bat aurkitu arte". Izan ere, Testa putre funtsa "ez da inoiz negoziatzera eseri ekainean epaitegiari esan zion bezala. Carolina erosten saiatu da, etxebizitza uzteko presioa eginez, eta horrela, bere irabaziak maximizatzen jarraituz".

"Gaur geldiaraztea lortu dugu, baina azken hilabeteetan jakin dugu legez kanpoko hainbat etxegabete, kanporatze eta Testa demantzaile gisa dagoen beste etxegabete batzuk izan direla, epaitegietatik luzamendua aplikatu ez dutenak. Beraz, etxegabetei, etxebizitzaren arazoari eta miseria kapitalistari aurre egiteko tresna gure auzo eta herrietan elkertasunetik eta elkarrekiko babesetik antolatzea da. Etxebizitzarako sarbide unibertsalaren alde, etxegabete guztiak geldiaraztearen alde ", amaitu du Harituk komunikatua.

<https://eh.lahaine.org/gaur-buztintxurin-programatuta-zegoen-etxegabetzea>